

Sabin Irizar  gogoan

# Non-nahi eta beti euskalduna

Bere bigarren liburua argitaratu gabe hil zen joan den abuztuan Sabin Irizar idazle gipuzkoarra

**B**ere izena ez da inongo **B**entziklopediatan agertzen, eta hil zenean ere apenas aipamen handirik izan zuen komunikabideetan. EGUNKARIAN ere ez genuen jakin duela gutxi arte jakin Sabin Irizar hil zela. Baina, berandu bada ere, Sabin Irizar nor zen gogoratu nahi izan dugu, idazle honek orain arte izan duena baino arreta handiagoa merezi duelakoan.

JUAN LUIS ZABALA / DONOSTIA

Sabin Gurutze Irizar Elosua abuztuaren 12an hil zen, Donostiako Arantzazuko Amaren erietxean, 72 urte zituela, bezurrekato minbizi baten ondorioz. Abuztuaren 13an hilobiratu zuten Donostiako Polloe hilerrian, eta haren arimaren aldeko hileta elizkizunak abuztuaren 16an egin ziren. Ez zuen ordea oihartzun handirik izan euskal idazle honen heriotzak komunikabideetan.

1923ko martxoaren 8an jaio zen Sabin Irizar, Deban. Oñatiara zuen aita eta Debakoa ama. Aita, Peli Irizar, abertzale sutsua zen, EAJko burukidea, eta, hainbat eta hainbat arazo eta trabari aurre eginik, semearekin Sabin Gurutze izena jarztea lortu zuen. Bost urte zituela Donostiako Prim kalera aldatu zen familia, eta han hazi zen Sabin Irizar gaztea. Muñoako eskoletan egin zituen lehen ikasketak.

Bilbora jo zuen ondorengo urteetan Sabin Irizarren familiak, eta Zallako maristen ikastetxean jarraitu zituen honek ikasketak. Santanderrera jo zuten gero Irizarrek, baina gerra piztu zenean Frantziara iltas egin zuten isatsontziz, eta handik Flandriara jo geroago. Mechelengo (Flandria) Scheppers institutuaren ikasi zuen Sabin Irizarrek, baina gero, nazien mehatxuarekin, Frantziara itzuli behar izan zuten, Landetarra.

Erresistentziako euskal brigadako kide izan zen Irizar, Ordoki komandantearen aginduetara. Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean Parisera jo zuen eta hango juduekita harreman estuak izan zituen. Israel estatuaren sortkuntzaren alde lan handia egin zuen.

1947ko irailean Venezuelara jo zuen itsasontziz. Lanbide ugari izan zuen han. Berak *toderro*-a izan zela esan ohi zuen, han ikasitako hitza erabiliz; hau da, lanbide jakinik izan gabe denetik egitea egokitu zitzaion; liburu, lurrin, egur eta abarren saltzaile, General Motors, Morrison,

Knuksen eta Reynolds bezalako enpresa garrantzitsuetako administrari, brotxa lodi zein pintzel fineko pintore, peoi, artzain, meatzari...


Venezuelako Armadaren zerbitzuan toponimia lanetan ere jardun zuen Gran Sabana eskualdean (Venezuela, Guayana eta Brasil arteko mugetan), eta orduan fraile espainiarrek ezarritako izen erlijiosoen ordez jatorrizko izenak berreskuratzen ahalegindu zen.

**CARACASEN EUSKARAZ EZKONDUA**

Caracasen eza-gutu zuen Miren Irizar laskaotarra —Iñaki Larrañaga Siadecoko arduradunaren izeba—, eta Caracasen ezkondu ziren biak, hango beneditarren elizan, euskaraz egindako ezteietan.

Irratigintzan sartu zen burubelarri ondorengo urteetan. Hainbat irratitan aritu ondoren, 'Eusko Deia' irratian esatari eta emisio arduradun izan zen. Euskal Etxean ere bazuen ardurarik.

Franco hil ondoren, 70eko hamarkadaren bigarren erdialdean, Euskal Herrira itzuli zenean, Sabin Irizar, euskal politikaren munduan parte hartu nahirik, ESB alderdiko (Euskal Sozialista Biltzarrea) militante egin zen, baina aurki utzi behar izan zuen alderdia, Txillardegi eta Mikel Garmendiarekin batera. Osasun arazoak zirela eta, Euskal Herrikoa baino eguraldi leunago baten bila, Tenerifera jo zuen lehenik, eta Puerto de Ma-



Isil-isilik hil zen Sabin Irizar joan den abuztuaren 12an.

zarron-era (Murtzia) gero. Bi leku horietan eman zituen bere azken urteak, azkenean Euskal Herrian hil bada ere.

Bi liburu idatzi zituen Sabin Irizarrek, baina bakarra argitaratu: Venezuelara jo baino lehenagoko bere ibilkiak jasotzen dituen 'Txingo'. 1973an eman zuen argitara lehen aldiz. Gero argitaletxearen eskutik. Dionisio Amundarainek Irizarren jatorrizko izkribua euskara batura

egokitu zuen argitaraldi hartarako. Lehen argitaraldia agortu egin zen, baina bigarren bat ere izan zen, egun liburudendetan eska daitekeena, Elkar argitaletxeak 1990ean egin, hala eskuizkribua nola Amundarainen aldaera iturriztat hartuz.

Sabin Irizarren bigarren liburua argitaratzeko dago oraindik. Liburu horretan Venezuelan bizi izandako urteen berri eman zuen Sabin Irizar zenak.

## III. Reicharen goraldia eta gainbehera

SABIN IRIZAR

Sabin Irizarren 'Txingo' libururik hartutako pasarteak dituzte hau, Elkar argitaletxearen argitaraldiko (1990) 137 eta 138. orrialdeei dagokienez. Bere laburrean ere, gerrari buruzko testu iradokorra da, liburuak presaren indarra eta edertasuna agerian jartzen dituena.

Izarbelak, ibilgune eten gabekoan, apogea, hots, ludirik urruneko mailara heltzen direnean, ez daukate bertan gelditzerik, eta une berean hasten dira honutz bidean, guregana hurbiltzen, perigeora, hots, hurbilean aurkitzen diren lekuerara heldu arte.

Irudi bidez, horixe bera gertatu zitzaion Alemaniako III. Reich guztiahaltsuari ere; goi maila, apogea, heldu bezain laster, une berean hasi zen beheruntz, guregandik hurbilen ikusten genituen lekura, hau da, perigeora heldu, eta bere amaia ikusi genuen arte.

Gerla urte ikaragarri haiek, nik sortzerian igaro nituen.

Gerla amaitu berria zen, berriro Frantziara heldu nintzean.

Laluque-ko gizasemeak herrira itzultzen hasiak ziren. Gehienak Alemanian lanean egondakoak; batzuk guda hasi-berri egunetatik deitscharren mendepean espesete eta presondegiaren egonak; banaka batzuk, bertan geratu zirenak, eta gero Frantziaren alde FFI guda-taldeetan deitscharrak zirkatzen ibilitakoak.

Azkenengo aitatu ditudan hauek harro samar zebiltzan. Gerla Handiko, 1918ko, «poilus» haiek adina bazirela iritziaz.

Lehendik ezagutzen nituen deitschar gudiari beldurgabeak ezin ezagutu nituen orain. Gizonak halako aldatetarik egin zezakeenik ezin nuen sinestu.

Garai bateko gudari gazte biki haiek elbarrituriko agureak ziruditen; oinak erdi-arrastaka, narras antzeko soineko jakkeraz, ilea motz mozuta, burua makur, isil eta kezkatu, P.F. (prisonnier de guerre) hizki handiak iragarki bezala bizkarrean jositak; ez zuten oraintsu Laluque-ra heldu ziren Wehrmachtuko gudari oldarkor hauen antzik.

Ez naiz ni gerlaren zale, baizik bakearen alde...; ez dago zer esanik; eskura dituzte frantsesek eta deitscharrek geroztik idatzitako edesti liburuak, argazki eta guzti; eta gerlaren epai auzia zuen eskuetan geratzen da.

TXILLARDEGI idazlea

IRITZIA

## Sabin oroitzuz

**E**zustean harrapatu ninduen Sabinen heriotzaren berriak. Beranduegi jakin dudanez (beste askok bezala), Abuztuaren 11n hil zen Euskal Herrian, jadanik osasuna desagina, eta itsu bizi zelarik. 75 urte betetzekotan itzali zaigu.

Debako familia abertzale batean jaioa (Peli Irizar, bere aita, PNVko burukide ezaguna izan zen gerra aurretik), Sabinek bere urterik onenak eman zituen Venezuelan.

1936ko gerra amaitu ondoren, hamak eskutan Hego aldera itzultzeko antolatuta ziren gerrillatzaileak mugaz bestaldean, Ordoki eta Abad Gorostiza komandanteen gidaritzapean.

Sabinek orduan bere burua eskaini zuen; eta Iparraldean entrenatu zen, gero hona 'sartzekotan'. Agirrek ez zuen agindu hori inoiz eman. Eta Sabinek Venezuelara jo zuen.

Han Caracasen 'Eus-

kadi Irratian' lan egin zuen luzaz.

Franco hiltzean, eta 55 urte zituelarik, Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Trintzerpen kokatu zen, eta euskarazko eskolak emateari ekin zion. Politikoki ere parte hartu nahi zuela, eta ESB alderdian sartu zen.

Nik idazle mailako gutun-harremanen bidez ezagutu nuen: 'Txingo' itakurria nuen nik, eta Sabinek nire 'Leturia' eta 'Peru Leartzako'. Hainbeste urte Venezuelan egon ondoren ere, Irizarrek harrigarriro menderatzen zuen euskara; Caracasen erdara guztiz ongi ezagutzen bazuen ere.

Gipuzkoan, dena dela, osasun arazoak agertu zitzaizkion. Beti esaten zigen «hotzak» zegoela, eta «izoztu» egiten zela. Hainbeste urte itxarondako pizkunde aberzalea, errekaratua ikusi uste zuen, bestalde. Eta Tenerifera aldatu zen. Etxe-

txo apal bat eraikia zuen itsasoa- ren ondoan, eta hantxe bisitatu nuen nik orain dela zortzi bat urte. Aludkurik ere, ez zuen umorea gabdu.

Eta 'Txingo-ren' segida idatzi zuen: abentura pilo harrigarria. Ez genuen argitaratzerik lortu. Badi- urte azkeneko hila betetzen idatzia zeukan «guztia» erre zuela...

Murtzian emandako urteak gero eta hitsago izan bide zaizkio. Hemengo berririk ez bidaltzeko eskatu zidan (beste batzuei bezala): «mingarriegi» omen zitzaion Euskal Herriaren egoera. Eta azkeneko urte hauetan ozta-ozta bidaltzen zizkidan Eguberritako zorionak.

Zinez esan dezakegu, beraz, gure hizkuntzak langile on bat galdut duela, eta Sabin ere, beste milaka bezala, 1936ko gerrateak eta ondoko gertaerak suntsitu dutela.

On da hau guztia abertzale gazteok jakitea.